

241/2025 EBAZPENA, uztailaren 11koa, Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Goierri-Urola Garaiko ESlan Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari-gerentearen apirilaren 28ko 114/2025 Ebazpenaren bidez, Goierri-Urola Garaiko ESlan Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu zen (2025eko maiatzaren 15eko EHAA eta 2025eko maiatzaren 26ko BOE).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko ekainaren 16an.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.– Goierri-Urola Garaiko ESlan Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Goierri-Urola Garaiko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Zumarragan, 2025eko uztailaren 11n.

Goierri-Urola Garaiko ESiko zuzendari-gerentea,
LAURA AGUIRRE ALBERDI.



Osakidetza
GERENTZIA
GERENCIA
O.S.I. GOIERRI-ALTO UROLA
GOIERRI-UROLA GARAICO E.S.I.

I. ERANSKINA

OTORRINOLARINGOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- LUQUI ALBISUA, IÑIGO

Baztertuak:

- Inor ez